

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 299/2008 (EE) ERREGELAMENDUA 2008ko martxoaren 11koa, landare- eta animalia-jatorriko elikagai eta pentsuetako pestizida-hondarren gehienezko mugei buruzko 396/2005 (EE) Erregelamendua aldatzen duena, Batzordeari esleitutako betearazte-eskumenei dagokienez.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da :
«REGLAMENTO (CE) Nº 299/2008 DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 11 de marzo de 2008, por el que se modifica el Reglamento (CE) no 396/2005, relativo a los límites máximos de residuos de plaguicidas en alimentos y piensos de origen vegetal y animal, por lo que se refiere a las competencias de ejecución atribuidas a la Comisión» (*Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 97/67, 2008/4/9koa*)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 299/2008 (EE) ERREGELAMENDUA

2008ko martxoaren 11koa,

landare- eta animalia-jatorriko elikagai eta pentsuetako pestizida-hondarren gehienezko mugei buruzko 396/2005 (EE) Erregelamendua aldatzen duena, Batzordeari esleitutako betearazte-eskumenei dagokienez

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzen duen Trataturia, eta, bereziki, haren 37. artikulua eta 152. artikuluko 4. paragrafoko b) idatz-zatia aztertu dituzte,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute ⁽¹⁾,

Kontsulta egin diote aldez aurretik Eskualdeetako Komiteari,

Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki ⁽²⁾,

Honako hauek kontuan hartuta:

(1) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 396/2005 (EE) Erregelamenduak xedatutakoaren arabera ⁽³⁾, neurri jakin batzuk Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiak, 1999ko ekainaren 28koak, Batzordeari esleituriko betearazte-eskumenak baliatzeko prozedurak ezartzen dituenaren arabera onartu behar dira ⁽⁴⁾.

(2) 1999/468/EE Erabakia 2006/512/EE Erabakiaren bitartez aldatu zen, Tratatuaren 251. artikulua arabera xedatutako prozeduraren bitartez onartutako oinarriko egintza batean funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurri orokorrak onartzeko kontrol-dun arautze-prozedura onartu baitzuen.

(3) Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen 2006/512/EE Erabakiari buruzko Aitorpenaren arabera ⁽⁵⁾, kontrol-dun arautze-prozedura Tratatuaren 251. artikuluan xedatutako prozeduraren arabera onartutako egintzetan, dagoeneko indarrean daudenetan, kontrol-dun arautze-prozedura aplikagarria izateko, azken horiek aplikagarriak diren prozeduren arabera egokitu behar dira.

(4) Komenigarria da Batzordeari eskumenak ematea, 396/2005 (EE) Erregelamenduen irismena zehaztu eta erregelamendu horren eranskinetan aipatzen diren landare- eta animalia-jatorriko elikagai eta pentsuetako pestizida-hondarren gehienezko mugak (HGM) zehazteko beharrezko irizpideak ezartzeko ere. Neurri horiek irismen orokorra dutenez, eta 396/2005 (EE) Erregelamenduan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzen dituztenez, eta batzuetan Erregelamendu hori funtsezkoak ez diren elementuekin osatzen dutenez, 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluan xedatutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartuko dira.

(5) Eraginkorragoa izateko, eragile ekonomikoek erabaki-prozedura azkarraren onurak jaso ditzaten, eta aldi berean kontsumitzaileen babes-maila handia izan dezaten, oro har kontrol-dun arautze-prozeduren esparruan aplikagarriak diren epeak laburragoak izan beharko dira HGMak aplikatu, aldatu edo ezabatzeko hartzen diren neurrietarako, baita inolako

(2) Europako Parlamentuaren Irizpena, 2007ko azaroaren 29koa (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko martxoaren 3koa.

(3) L 70 EO, 2005.3.16koa, 1. or. Batzordearen 178/2006 (EE) Erregelamenduak (L 29 EO, 2006.2.2koa, 3. or.) aldatu zuen Erregelamendua.

(4) L 184 EO, 1999.7.17koa, 23. or. 2006/512/EE Erabakiak (L 2000 EO, 2006.7.22koa, 11. or.) aldatutako Erabakia.

(5) EO C 255, 2006.10.21ekoa, 1. or.

2008/299/EE erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 97/67, 2008/4/9koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

HGMrik behar ez duten substantzia aktiboen zerrendarako nahiz uztaren ondoren fumigatzaile gisa erabiltzen diren substantzia-konbinazio edo produktu aktiboen zerrendarako.

(6) Presazko arrazoiak direla-eta, eta bereziki animalia edo gizakien bizitzarako arriskurik badago, kontrol-dun arautze-prozeduraren esparruan oro har aplikagarriak diren epeak bete ezin badira, Batzordeak 1999/468/EE Erabakiko 6. paragrafoko 5 bis artikuluan xedatutako presazko prozedura aplikatu ahal izango du, era horretan HGMak aplikatu, aldatu edo ezabatzeke neurriak hartzeko.

(7) Beraz, bidezkoa da 396/2005 (EE) Erregelamendua aldatzea.

HONAKO ERREGELAMENDU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

Aldaketak

396/2005 (EE) Erregelamendua aldatu egingo da, eta horrela idatzita geratuko da:

1) 4. artikuluko 1. paragrafoaren ordez honako testu hau jarriko da:

«1. 2. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako produktu, produktu-multzo edo produktu-atalak, hain zuzen ere HGM bateratuak aplikatzen zaizkienak, I. eranskinean zehaztu eta bilduko dira. Neurri hori, Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzen dituena, 45. artikuluko 3. paragrafoan xedatutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera onartuko da. I. eranskinean HGMdun produktu guztiak aipatuko dira, baita HGM bateratuak aplikatzea komeni den gainontzeko produktuak ere, batez ere kontsumitzaileen elikaduran edo merkataritzan garrantzitsuak direlako. Produktuak taldeka sailkatuko dira, ahal den heinean, HGMak antzeko produktuen taldeetarako zehaztu ahal izateko.»

2) 5. artikuluko 1. paragrafoaren ordez honako testu hau jarriko da:

«1. 91/414/EEE Zuzentarauaren arabera ebaluatutako produktu fitosanitarioen substantzia aktiboak, hain zuzen ere HGMrik behar ez dutenak, Erregelamendu honetako IV. eranskinean zehaztu eta bilduko dira, betiere substantzia horien erabilerak eta 14. artikuluko 2. paragrafoko a), c) eta d) idatz-zatietan aipatutako elementuak kontuan hartuz. Neurri horiek, Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzekoak, 45. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartuko dira.»

3) 8. artikuluko 2. paragrafoaren ordez honako testu hau jarriko da:

«2. Eskaerak 91/414/EEE Zuzentarauko VI. eranskinean xedatutako produktu fitosanitarioak ebaluatu eta baimentzeko printzipio bateratuen arabera ebaluatuko dira, edo bestela, Batzordearen erregelamendu batean xedatutako berariazko ebaluazio-printzipioen arabera. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu edo osatzeko neurriak 45. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako arautze-prozeduraren arabera hartuko dira.»

4) 14. artikuluko 1. paragrafoaren ordez honako testu hau jarriko da:

«1. Erakundearen txostena jaso ondoren, eta hura kontuan hartuta, Batzordeak, egun horretatik hiru hilabetera gehienez, egintza hauetako bat osatu beharko du:

a) HGM bat zehaztu, aldatu edo ezabatzeke erregelamendua. Erregelamendu horrek Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatuko ditu, eta 45. artikuluko 4. paragrafoan xedatutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera onartuko da. Presa arrazoiak direla-eta, Batzordeak 45. artikuluko 5. paragrafoan xedatutako presako prozedura erabili ahal izango du, kontsumitzaileen babes-maila handia bermatzeko;

b) eskaera ukatzen duen erabakia, 45. artikuluko 2. paragrafoan xedatutako arautze-prozeduraren arabera onartutakoa.»

2008/299/EE erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 97/67, 2008/4/9koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

5) 15. artikuluko 2. paragrafoaren ordez honako testu hau jarriko da:

«2. Aldi baterako HGMak, hain zuzen ere 1. paragrafoko b) idatz-zatian xedatutakoaren arabera onartzen direnak, 91/414/EEE Zuzentarauko I. eranskinean substantzia aktiboa sartu denetik edo ez denetik urte betera, III. eranskinetik ezabatuko dira erregelamendu baten bitartez. Erregelamendu horrek Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatuko ditu, eta 45. artikuluko 4. paragrafoan xedatutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera onartuko da. Presazko arrazoiak direla-eta, Batzordeak 45. artikuluko 5. paragrafoan xedatutako presazko prozedura erabili ahal izango du, kontsumitzaileen babes-maila handia bermatzeko.

Hala ere, Estatu kide batek edo batek baino gehiagok hala eskatzen badute, aldi baterako HGMak beste urte betean mantendu ahal izango dira, HGM bat finkatzeko eskaera laguntzeko beharrezko azterlan zientifikoei ekin zaiela baieztatu arte. Baieztapen hori aurkezten bada, aldi baterako HGMA beste bi urtetan mantenduko da, baldin eta kontsumitzaileen segurtasunerako arrisku onartezinak antzeman ez badira.»

6) 18. artikulua ordez honako testu hau jarriko da:

«18. artikulua

HGMak betetzea

1. Elikagai edo pentsu gisa merkaturatu edo animaliei jaten emateko erabiltzen diren momentutik aurrera, I. eranskinean aipatutako produktuek ezingo dituzte pestizida-maila hauek gainditu:

a) produktu horiei buruzko HGMak, hain zuzen ere II eta III. eranskinetan bildutakoak;

b) 0,01 mg/kg II eta III. eranskinetan HGM zehatzik ez duten produktuentzat, edo IV. eranskinean ageri ez diren substantzia aktiboentzat, baldin eta eskuragarri dauden ohiko analisi-metodoen arabera, substantzia aktibo jakin baten bitartez lehenetsitako balioak ezberdinak ez badira. Neurri horrek Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatuko ditu, eta 45. artikuluko 4. paragrafoan xedatutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera onartuko da. Presazko arrazoiak direla-eta, Batzordeak 45. artikuluko 5. paragrafoan xedatutako presazko prozedura erabili ahal izango du, kontsumitzaileen babes-maila handia bermatzeko.

2. Estatu kideek ezingo dute beren lurraldean I. eranskinean zehaztutako produktuak animaliei jaten emateko pentsu gisa merkaturatu edo erabiltzeko debekua jarri, produktu horiek pestizida-hondarrak dituztelako, baldin eta:

a) produktu horiek 1. paragrafoan eta 20. artikuluan xedatutakoa betetzen badute; edo

b) substantzia aktiboa IV. eranskinean ageri bada.

3. 1. paragrafoan xedatutakoa eragotzi gabe, Estatu kideek, beren lurraldeetan uzta ondoren egindako fumigazio-tratamenduaren ondoren, I. eranskinean aipatutako produktuek II. eta III. eranskinetan xedatutako mugak gainditzea baimendu dezakete, substantzia aktiboaren eta produktuaren arteko konbinazio hori VII. eranskineko zerrendan ageri bada, eta baldin eta:

a) produktu horiek ez badira berehalako kontsumorako erabiltzen;

b) produktu horiek azken erabiltzaile edo kontsumitzaileen esku bukatzen ez dutela bermatzeko kontrol egokiak badaude, edo produktu horiek zuzenean hornitzen badira, hondarrek II edo III. eranskinetan aipatutako gehienezko mugak gainditzeazti uzten dioten arte;

c) gainontzeko Estatu kideei eta Batzordeari hartutako neurrien berri eman bazaie. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurriak, hain zuzen ere VII. eranskineko zerrendan ageri diren substantzia aktiboaren eta produktuaren arteko konbinazioak zehaztekoak, 45. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako arautze-prozeduraren arabera hartuko dira.

2008/299/EE erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 97/67, 2008/4/9koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

4. Ohiz kanpoko baldintzetan, eta bereziki 91/414/EE Zuzentarauko 8. artikuluko 4. paragrafoan xedatutako moduan produktu fitosanitarioak erabili ondoren, edo 2000/29/EE Zuzentaruak xedatutako betebeharrak betez (*), Estatu kideek 1. paragrafoko xedapenak betetzen ez dituzten elikagai edo pentsuak animalientzako pentsu gisa merkaturatu edo erabiltzea baimendu dezakete, elikagai edo pentsu horiek arrisku onartezinak sortzen ez badituzte. Baimen horiek berehala jakinaraziko zaizkie gainontzeko Estatu kideei, Batzordeari eta Erakundeari, arriskuari buruzko ebaluazioarekin batera, biak aldi baterako HGMak ezartzeko ahalik eta azkarren aztertzeko, edo horri buruz beste edozein neurri hartzeko. Neurri horiek Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatuko dituzte, eta 45. artikuluko 4. paragrafoan xedatutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera onartuko dira. Presazko arrazoiak direla-eta, Batzordeak 45. artikuluko 5. paragrafoan xedatutako presazko prozedura erabili ahal izango du, kontsumitzaileen babes-maila handia bermatzeko.

(*). Kontseiluaren 2000/29/EE Zuzentaruak, 2000ko maiatzaren 8koa, Erkidegoan landare edo landare-produktuentzako kaltegarriak izan daitezkeen organismoak ez sartzeko babes-neurriei eta Erkidego barruan organismo horiek ez zabaltzeko babes-neurriei buruzkoa (L 169 EO, 2000.7.10ekoa, 1. or.). Batzordearen 2007/41/EE Zuzentaruak (L 169 EO, 2007.6.29koa, 51.or.) aldatutako Zuzentaruak.».

7) 20. artikuluko 2. paragrafoaren ordez honako testu hau jarriko da:

«2. VI. eranskineko zerrendan kontzentrazio- edo diluzio-faktore bereziak xedatu ahal izango dira eraldaketa-eragiketa eta nahasketa-eragiketa jakin batzuetarako, nahiz eraldatutako edo konposatutako produktu jakin batzuetarako. Neurri horiek, Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzekoak, 45. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartuko dira.».

8) 21. artikuluko 1. paragrafoaren ordez honako testu hau jarriko da:

«1. I. eranskinean aipatzen diren produktu-erakundeak HGMak lehen aldiz II. eranskinean zehaztu eta aipatuko dira, 86/362/EEE, 86/363/EEE eta 90/642/EEE Zuzentaruak zerrendatutako HGMak kontuan hartuz. Neurri horiek, Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzekoak, 45. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartuko dira.».

9) 22. artikuluko 1. paragrafoaren ordez honako testu hau jarriko da:

«1. Substantzia aktiboek buruzko aldi baterako HGMak, 91/414/EEE Zuzentarauko I. eranskinean sartu behar diren edo ez diren erabaki ez bada, Erregelamendu honetako III. eranskinean zehaztu eta bilduko dira lehen aldiz, Estatu kideek aurkeztutako informazioa kontuan hartuz, II. eranskineko zerrendan ageri ez badira, eta beharrezkoa bada, baita 24. artikuluan aipatutako irizpenean nahiz 14. artikuluko 2. paragrafoan xedatutako faktoreak eta HGM hauek kontuan hartuz:

a) 76/895/EEE Zuzentarauko eranskineko gainerako HGMak, eta

b) orain arte bateratu gabeko HGM nazionalak.

Neurri horiek, Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzekoak, 45. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartuko dira.».

10) 27. artikuluko 2. paragrafoaren ordez honako testu hau jarriko da:

«2. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatzeko neurriak, 2002/63/EE (*) Zuzentaruak xedatutako produktuetan pestizida-hondarren kontrolak egiteko laginketa-metodoak zehazten dituztenak, Erregelamendu honetako 45. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozesuaren arabera hartuko dira.

(*) Batzordearen 2002/63/EE Zuzentaruak, 2002ko uztailearen 11koa, landare- eta animalia-jatorriko produktuetan pestizida-hondarrak modu ofizialean kontrolatzeko erkidego mailako laginketa-metodoak zehaztu eta 79/700/EEE Zuzentaruak baliogabetzen duena (L 187 EO, 2002.7.16koa, 30. or.).».

2008/299/EE erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 97/67, 2008/4/9koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

11) 45. artikulua ordez honako testu hau jarriko da:

«45. artikulua

Komitearen prozedura

1. Batzordeak Elikadura-katearen eta animalien osasunaren Komite iraunkorraren laguntza izango du; hain zuzen ere 178/2002 (EE) Erregelamenduko 58. artikulua xedatutakoaren arabera sortutakoaren laguntza.

2. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 5 eta 7. artikulua aplikatuko dira, eta 8. artikuluan xedatutakoa bete behar da.

1999/468/EE Erabakiaren 5. artikulua 6. paragrafoan bilduriko epea hiru hilabetekoa izango da.

3. Honako paragrafo hau aipatzen duten kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluko 1.tik 4.era bitarteko paragrafoak, eta 7. artikulua izango dira aplikatzekoak, 8. artikuluan xedatutakoa betetz.

4. Honako paragrafo hau aipatzen duten kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluko 1.tik 4.era bitarteko paragrafoak, eta 5. ataleko b) idatz-zatia eta 7. artikulua izango dira aplikatzekoak, 8. artikuluan xedatutakoa betetz.

1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluko 3. paragrafoa c) idatz-zatian eta 4. paragrafoa b) eta e) idatz-zatietan aipatutako epeak bi hilabete, hilabete bat eta bi hilabete izango dira, hurrenez hurren.

5. Honako paragrafo hau aipatzen duten kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluko 1, 2, 4 eta 6. paragrafoak, eta 7. artikulua izango dira aplikatzekoak, 8. artikuluan xedatutakoa betetz.».

12) 46. artikulua ordez honako testu hau jarriko da:

«46. artikulua

Aplikazio-xedapenak

1. Erregelamendu hau modu uniformearen aplikatuko dela bermatzen duten aplikazio-xedapenak, horien aplikazioan laguntza tekniko emateko dokumentuak eta HGMak zehazteko eskatzen diren datu zientifikoei buruzko arau xehatuak 45. artikuluko 2. paragrafoan xedatutako arautze-prozeduraren arabera ezarri eta aldatuko dira, betiere, dagokion Erakundearen irizpena kontuan hartuta.

2. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurriak, hain zuzen ere 23. artikuluan, 29. artikuluko 2 paragrafoan, 30. artikuluko 2. paragrafoan, 31. artikuluko 1. paragrafoan eta 32. artikuluko 5. paragrafoan aipatutako datak ezarri edo aldatzekoak, 45. artikuluko 3. paragrafoan xedatutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartuko dira, betiere dagokion Erakundearen irizpena kontuan hartuz.».

13) 49. artikulua ordez honako testu hau jarriko da:

«49. artikulua

Neurri iragankorrak

1. III. kapituluko baldintzak ez dira 50. artikuluko bigarren lerrokadan aurreikusitako data baino lehen Erkidegoan legalki ekoiztu edo inportatutako produktueta aplikatuko.

Hala ere, kontsumitzaileen babes-maila handiagoa bermatzeko, produktu horiekiko egoki diren neurriak hartu beharko dira. Neurri horiek, Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzekoak, 45. artikuluko 5. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera onartuko dira.

2008/299/EE erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 97/67, 2008/4/9koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2. Produktu horien merkaturatze, eraldaketa eta kontsumo normala baimentzeko beharrezkoa bada, neurri iragankor berriak onartu ahal izango dira 15, 16, 21, 22 eta 25. artikuluetan aipatutako HGMak aplikatzeko. Neurri horiek, Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzekoak, kontsumitzaileek babes-maila altua bermatzeko betebeharra eragotzi gabe, 45. artikuluko 4. paragrafoan aipatutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera onartuko dira.».

2. artikulua

Indarrean sartzea

Erregelamen du hau *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Erregelamendu honetako elementu guztiak nahitaez bete beharrezkoak eta estatu kide guztietan zuzenean ezartzekoak izango dira.

Estrasburgon egin, 2008ko martxoaren 11n.

Europako Parlamentuaren izenean, H.-G. PÖTTERING presidentea

Kontseiluaren izenean, J. LENARČIČ presidentea